

ZURE ENPRESAN LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ANTOLATZEKO MODUA

Enpresa bateko kide garen pertsona guztiok ditugu erantzukizunak laneko arriskuak prebentzioari dagokionez. Hala eta guztiz ere, enpresa bera da lan-jarduera segurtasun- eta osasun-baldintza egokietan egiten dela bermatzeaz arduratu behar dena. Horretarako, beharrezkoa da prebentziorako funtsezko jarduketara sorta bat garatzea. Laneko arriskuaren prebentzioak antolatuta eta sistematizatuta egon behar du, lan-jardueraren beste edozein alderdi bezala.

Laneko arriskuaren prebentzioa behar bezala kudeatzeko erabaki behar den lehenengo gauzetako bat xede horretarako erabiliko diren berariazko baliabideen antolaketa-eredua da; alegia, **prebentzio-modalitatea**.

Horretarako, baliabide propioak eta/edo kanpokoak hartzen ahal dira aintzat, enpresaren ezaugarrien, jarduera motaren eta langile kopuruaren arabera.

ARAUDIA

Prebentzio Zerbitzuen Arautegia onartzen duen urtarrilaren **17ko 39/1997 Errege Dekretuaren** (aurrerantzean, **PZA**) 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, enpresak modalitate hauetako batez edo gehiagoz baliatu behar dira:

1. Enpresariak beren gain hartzea
2. Langile bat edo batzuk izendatzea
3. Prebentzio zerbitzu propioa eratzea
4. Prebentzio zerbitzu mankomunatu eratzea
5. Besteren prebentzio zerbitzua eratzea

1. Prebentziorako jardueren ardura enpresariak bere gain hartzea (PZAren 11. artikulua).

- Baldintza hauek bete behar dira:
- 10 langile baino gutxiago izatea; edo 25, lantoki berean egiten badute lan.
 - PZAren I. eranskinean agertzen ez den jarduera produktiboa ("bereziki arriskutsuak diren jarduerak").
 - Enpresariak normalean haien lan-jarduera lantokian bertan egitea.
 - Enpresariak prebentziorako funtzioak betetzeko behar den prestakuntza eta trebakuntza izatea (ikus PZAren VI. kapitulua eta IV, V eta VI. eranskinak).
 - Enpresariak beren gain hartzen ahal ez dituzten jardueretarako, besteren prebentzio zerbitzu bat kontratatzea (bereziki, osasuna zaintzeko).

2. Enpresako langile bat edo batzuk izendatzea (PZAren 12 eta 13. artikulua).

Enpresariak langile bat edo batzuk izendatuko ditu eta haien eskura jarriko ditu funtzio horiek behar bezala betetzeko beharrezkoak diren baliabideak eta denbora. Izendatutako langileek bete beharreko funtzioei dagokien gaitasuna izan beharko dute, PZAren VI. Kapituluaren ezarritakoaren arabera.

3. Prebentzio zerbitzu propioa eratzea (PZAren 14. artikulua).

Prebentzio zerbitzu propioa enpresako unitate bat da, beharrezkoak diren prebentziorako ekintzak gauzatzen dituena. Nahikoa langile (egin beharreko prebentziorako ekintza motaren arabera behar den trebetasun mailarekin) eta baliabide egokiak izan behar ditu. Modalitate hau derrigorrezkoa da baldintza hauek betetzen dituzten enpresentzat:

- 500 langile baino gehiago izatea; edo 250, jarduera bereziki arriskutsuak egiten badira (ikus PZAren I. eranskina).
- Lan-agintaritzak hala eskatzea.
- Prebentzio zerbitzu propioa «antolakuntza-unitate espezifiko bat izan da, eta hura osatzen duten kideek xede horretara soilik bideratuko dute enpresan egiten duten lana».

4. Prebentzio zerbitzu mankomunatu eratzea (PZAren 21. artikulua).

Prebentzio zerbitzu mankomunatu eratzen ahalko da, enpresak baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- Jarduerak lantoki, eraikin edo merkataritza-gune berean egitea.
- Produktzio-sektore edo enpresa-talde berekoak izatea.
- Jarduerak industrialde edo eremu geografiko mugatu berean egitea.
- Legez prebentzio zerbitzu propioa izatera behartuta dauden enpresak ezin izanen dute sektore jakin bateko enpresentzat sortutako prebentzio zerbitzu mankomunatu bateko kide izan, baina bai talde bereko enpresentzat sortutako zerbitzuko kide.

5. Besteren prebentzio zerbitzu batekin ituntzea enpresak baliabide propioekin bere gain hartzen ez dituen jarduera guztiak edo batzuk.

Besteren prebentzio zerbitzu bat erakunde espezializatu bat da, Lan-agintaritzaren baimena duena prebentziorako jarduerak egiteko. Besteren prebentzio zerbitzu batera jotzen denean, komeni da prebentzioaren gaian aditua den enpresako kideren bat zerbitzuko kideekin koordinatzea, enpresaren prebentzioa benetan eta modu eraginkor batean integratzen laguntzeko.

IZAN GOGOAN

Prebentzio-modalitate bat edo beste hautatzearen kalterik gabe, prebentzioa modu eraginkor batean integratzeko ezinbestekoa da enpresako langileek (hierarkiaren maila guztietakoek) laneko arriskuen prebentzioa aintzat hartuta egitea eguneroko zereginak.

Enpresak erabaki egokiak, beharrezkoak eta zehatzak hartu behar ditu, eta prebentzioa eraginkorra izateko beharrezkoak diren baliabideak eman



Webgunea ere begiratzen ahal duzu:

<http://lanekoarriskuaknafarroa.eus/>



EZ ZAUDE BAKARRIK

Behar duzun guztietan bidaltzen ahal dituzu zure galderak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutura.

Ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari babes emateko irailaren 27ko 14/2013 Legearen 39. artikulua arabera, administrazio publikoek eta eragile sozialek laneko segurtasunari eta osasunari buruzko berariazko aholkularitza tekniko emanen diete 25 langile edo gutxiagoko enpresei.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zerbitzuak, haren estatutuen arabera, 25 langile edo gutxiagoko enpresei laneko segurtasunari eta osasunari buruzko berariazko aholkularitza tekniko emateko ardura du¹.

¹ Martxoaren 8ko 17/2017 Foru Dekretuaren 31. artikulua ac. atala. Foru Dekretu horrek Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua erakunde autonomoa sortu eta bere estatutuak onesten dituen uztailaren 18ko 63/2012 Foru Dekretua aldatzen du.